AUSTRALIA TA UGARTEAK

AUSTRALIA

Australia ugarte aundi bat da. Bere zabalerea 14 Iberia'ren bestekoa da eta inguruko itxaso biak Barea eta Indikoa dira.

Uririk geienak eta aundienak egoaldean dagoz, Kanberra ta Melburne, esaterako.

Sortaldea mendi-kate aundia da.

Erdialdea ta sartaldea basamortuak doguz eta orrein barruan antxiñako enda batzuk baiño ez dira bizi.

Nekazaritzarako lur ona mendikateen eta basamortuen artean dago. Eta abere-talde aundiak jaten dabe or.

Iparraldeko lurra epela da eta azukare-kañaberak dagoz ugari, banana ederrak be bai.

Bizilagunik geienak itxas-ertzean dagoz eta azal baltzekoak eta eiztariak dira. An dagozen zuriak Anglandia'tik joanak doguz.

Kanada lez au be, Commonbealt'en edo Errege-lur batuaren barruan dago.

Basoetan eukaliptua da zugatzik ugariena eta abereen artean geienak gutzat ez dira ezagunak. Urre-meatzak be badagoz.

Australitarrak dantzari trebeak eta ikusgarriak dira.

Garia lantzen be aurreratuak doguz, baiña euren aberastasunik aundiena ardiak dira. Artulea edo lanea sortzen dira munduko onenak.

Untxiak edo konejuak dagoz ugari eiztarientzat, baiña soloetan egiten dabez kalte aundiak. Burdin-sareakaz inguratu bear izaten dira soloak.

UGARTEAK

Itxasoak aundi ta zabalak dira: Atlantikoa, Barea, Iparraldeko izoztua, Indikoa. Eta itxas aundi onein bitarteetan itxas txikiagoa be ba-dagoz: Lur-artekoa, Gorria, Adriatikoa, Ejeoa, Baltza, Azov, Kaspio, Zuria, Baltikoa, Ipar-itxasoa, Kantaurikoa, Txina'koa.

Aleutianak deritxen ugarteak Alska'tik urrean dagoz, Bering itxasoaren ondoan. Beti egoten dira laiñopean.

Iberia osoa baiño ugarte aundiagoak dira batzuk, esaterako Groelandia ta Madagaskar, beste batzuk ostera, ez dira aitz-puruak baiño.

Groelandia'n eskimalak bizi dira alkarren ondoan eta udan barazkiak artzen dabez. Neguan eiztari dira eta fokak, azagariak, otsoak eta renoak eizatzen dabez.

Ugarte batzuk alkarragandik urrean dagoz eta artxipelago edo ugarte-moltzoak deritxe, esaterako Japon edo Pillipiñak.

PILLIPIÑAK

Menditsuak dira eta basoz aberatsak eta zur ona saltzen dabe. Euren etxeak banbuz egiten dabez, ageen gaiñean, uriolak kalterik ez egieko.

Lur-garriaren egoaldean: Argentina, Ego-Afrika, Australia. Ardi-lurrak.

Azukarea, arroza eta tabakoa dabez salgai. Bufaloak lagun dabezela lortzen dabez.

Arraintzarako dira trebeak.

JAPOIA

3.000 ugartek osotzen dabe. Menditsuak eta sumenditsuak dira.

Erraza beillegi edo oriko biztanleak dira eta beste errazarik ez dabe onartzen izan.

Arroza, tea, eta masustondoak daukez baiña ez dabe eurentzat beste janari sortzen izan. Gaur asko aurreratu dira eta langille ona eta laterri aberatsa dira.

Bertako lorategiak dira ikusgarriak.

Arrantzarako be oso trebeak dira.

Ugarte asko be asko dagoz munduan, batez ba Ozeania'ko Polinesia (ugarte asko) ta Melanesia'n (ugarte baltzak).

Olazar'tar Martin'ek